BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5187

AGINDUA, 2015eko azaroaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta ohiko eskola-garraioa erabili ezin duten ikasleentzat, ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta daudenentzat, 2015-2016ko ikasturterako banakako diru-laguntzak deitzen dituena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak irakaskuntzaren zerbitzu osagarri gisa antolatzen du, ikasturte bakoitzean, eskola-garraioa. Zerbitzu hau gauzatzeko, ibilbideak kontratatzen dira eta ikaslearen helbidearen eta ikastetxearen arteko distantzia eta ikasleen kopurua hartzen dira kontuan, ibilbide horiek zehazteko orduan.

Badira, egunero ikastetxeetara joan ahal izateko, irtenbide bat bilatu behar zaien ikasle zehatz batzuk, eta, ikasle horien artean, ohiko garraioa erabili ezin duten edo ezarritako ibilbideetara egokitzen ez diren desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialari lotutako hezkuntza-premia berezietako ikasleek kolektibo espezifiko bat osatzen dute. Helburu horrekin egiten da banakako diru-laguntzak emateko deialdi hau, eta, oro har, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Diru-laguntzen Lege Orokorrak) eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak (azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duenak) xedatutakoaren arabera jokatuko da diru-laguntza horiek emateko orduan. Horregatik guztiarengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuko diru-laguntzak arautzeri buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak VI. tituluan agertzen dituen xedapenen arabera,

eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako gastu-espedienteen aldez aurreko tramitazioa arautzen duenak, xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

1.– artikulua.– Deialdiaren helburua.

Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala izateagatik ohiko eskola-garraio erabili ezin duten ikasleentzat, 2015-2016ko ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan matrikulatuta daudenentzat, eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak deitzea du agindu honek helburu.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Aurrekontu-kredituetatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako jasota agertzen direnetatik, etorriko dira aurreko artikuluan adierazitako helbururako erabiliko diren baliabide ekonomikoak. Deialdi honetarako zenbatekoa 2.450.000 eurokoa da. Eman beharreko diru-laguntzen guztizko kopuruak ez du aipatutako zenbatekoa edo, indarreko legerian aurreikusten den kreditu-loturaren edo aurrekontua aldatzearen erregimenaren arabera, gaurkotzearen ondoriozkoa gaindituko, eta, behar izanez gero, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diru-laguntzen beste programa batzuk gauzatzearen ondoriozko agortu gabeko aurrekontuak erabiliko dira. Zirkunstantzia hori gertatuz gero, deialdia ebatzi aurretik, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da argitara.

2.– Aurrekontu-funtsak nahiko ez badira, ezarritako epean aurkeztu eta exijitutako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean banatuko dira, haietako bakoitzarentzat hasieran kalkulatutako zenbatekoen proportzio berean.

3. artikulua.– Baldintza orokorrak.

Ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden eta desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleek hartu ahal izango dute deialdi honetan parte, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan oro har xedatutako baldintzen kalterik gabe, ohiko eskola-garraioa erabili ezin badute eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) 2015-2016ko ikasturte batean ikastetxe publiko batean matrikulatuta egotea; salbuespen gisa eta, ikaslea bizi den eragin-eremuan berorren hezkuntza-premia berezietarako egokitutako ikastetxe publikoa ez egoteagatik Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak espresuki agindu duelako, itunpeko ikastetxe pribatu batean matrikulatuta egon ahal izango da ikaslea.

b) 2015eko abenduaren 31n 21 urte beteak ez izatea.

c) Lurralde mailako organo eskudunak emandako desgaitasun-ziurtagiria; desgaitasun mota eta maila adierazi beharko ditu.

d) Helbidetik hurbilen duen ikastetxera, eragin-eremuaren arabera dagokiona, joan behar izatea.

e) Tokian-tokiko berritzeguneko hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzaren balorazioaren arabera ohiko eskola-garraioa erabili ezin izatea.

f) Dohainikako edo erakunde publiko edo pribatuek guztiz lagundutako garraioa edukitzeko aukerarik ez izatea.

4. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Ikaslearen premietara egokitutako zerbitzu publikoa (autobusa, trena, tranbia, taxia ...) helbidearen eta ikastetxearen artean baldin badago, garraiobide merkeenarena izango da emango den diru-laguntzaren zenbatekoa.

2.– Ikasleen garraioa egiteko ibilgailu partikularrak erabiltzen badira, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko operazio hau egingo da: helbidearen eta ikastetxearen arteko kilometroen kopurua bider 0,29 euro.

3.– Ikaslea garraiatzeko bidaiak besterik ez dira diruz lagunduko eta, ikastetxeak eskola-jantokia duen kasuetan, ez dira egunean bi bidaia baino gehiago, eta inola ere ez lau baino gehiago, diruz lagunduko.

5. artikulua.– Eskaerak: dokumentazioa eta bateraezintasuna.

1.– Eskatzaileak ondorengo baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko erantzukizuneko adierazpena sartuko dute diru-laguntzen eskaerek, agindu honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera:

a) Diru-laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzeko zigorra administrazioaren edo justizia-auzitegien bidez jaso ez izana; halaber, ezin izango da horretarako ezgaitzen duen inolako legezko debekupean egon, ezta, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunarenak, azken seigarren xedapenean zehaztutakoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatu ahal izan direnen pean ere.

b) Helburu berberarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatu baten diru-laguntzarik jaso ez izana.

c) Zerga-eginbeharrak edo Gizarte Segurantzari begirakoak eguneratuta izatea.

d) Diru-laguntza emateko orduan exijitutako eta kontuan hartutako baldintzetakoren bati eragiten dion edozein zirkunstantzia aldatuz gero, bere gain hartzen du aldaketa horren berri Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari jakinarazteko konpromisoa.

2.– Agindu honen bidez arautzen diren diru-laguntzak ez dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin eman ditzaketen beste batzuekin bateragarri.

3.– Diru-laguntzak onuradunei eman eta ordaintzeko prozesuak diru-laguntzak itzultzeko edo zigortzeko edozein prozedurak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzen eremuan hasi bada, bukatzearen baldintzapean egongo dira.

4.– Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Lege Organikoak, titularitate publikoko datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia Sortzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, deialdi honen tramitazioan jasotako datuak, parte-hartzaileek tratamendurako eta argitara emateko baimena ematen badute, Hezkuntza Berezia izeneko fitxategi batean sartuko dira eta diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea eta parte hartzen duten pertsonei deialdia aurrera nola eramaten ari den informatzea izango ditu fitxategi horrek helburu. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira datuetara sartzeko eta datuak zuzendu, itxi eta aurkatzeko eskubideak, eta, horretarako, helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari ematen diote aurkeztutako agiri publikoak egiazkoak diren beste organismo publiko batzuetan egiaztatzeko eta zerga-eginbeharrak eta Gizarte Segurantzari begirakoak egunean dituztela ziurtatzeko egiaztagiria zuzenean, ziurtagiri telematikoen bidez, lortzeko baimena. Azken kasu honetan, baimena emateari espresuki uko egin ahal izango dio eskatzaileak eta, orduan, ziurtagiria aurkeztu beharko du.

6. artikulua.– Prozedura eta epeak.

1.– Aitak, amak, tutoreak, legezko ordezkariak edo ikasleak berak, adin nagusikoa bada, I. eranskinaren ereduaren arabera eskatuko du laguntza eta desgaitasun-ziurtagiriaren kopia ondorengo tokietan aurkeztu beharko du, hilabeteko epean, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita: ikasten duen ikastetxeko zuzendariari; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan adierazitako edozein egoitzatan, edo Herritarrei Arreta Emateko Eusko Jaurlaritzako Zuzenean Zerbitzuko edozein bulegotan: Kale Nagusia 85, 48011 Bilbao Bizkaian; Andia kalea 13, 20003 Donostia Gipuzkoan, eta Ramiro de Maeztu 10 behea, 10008 Vitoria-Gasteiz Araban. Informazioa eta arreta telefonoz eskatzeko, zenbaki hauetara jo beharko da: 012 Euskal Autonomia Erkidegotik, 945 01 80 00 Euskal Autonomia Erkidegotik at eta 00 34 945 01 80 00 atzerritik.

2.– Ikastetxeetako zuzendariek 10 eguneko epea izango dute I. eta II. eranskinak tokian-tokiko Hezkuntza Ordezkaritzari bidaltzeko, eskaerak aurkezteko epeak bukatzen duen datatik kontatzen hasita.

7. artikulua.– Deialdiaren kudeaketa.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da diru-laguntzak kudeatzeko eskuduntzak dituen organoa.

8. artikulua.– Eskaerak baloratzea eta diru-laguntzak ebaztea.

1.– Hezkuntza Berriztatzeko (Hezkuntza Berezia) lurralde mailako teknikariek aztertuko dituzte eskaerak eta berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkularitzen balorazioa hartuko dute kontuan.

2.– Hezkuntza Berriztatzeko (Hezkuntza Berezia) lurralde mailako teknikariek Baloratze Batzordeari helaraziko diote beren proposamena, behar bezala informatua eta lurralde arduradunaren bidez. Baloratze Batzorde horrek, deialdian ezarritako baldintzak kontuan hartuta, lurralde proposamenak aztertuko ditu eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari aurkeztuko dio esleitzeko behin-betiko proposamena. Honek ebatziko du.

3.– Hezkuntza Bereziaren arduraduna izango da Baloratze Batzordearen buru eta kide hauek osatuko dute:

– Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusiak edo eskuordetzen duen pertsonak.

– Hezkuntza Berriztatzeko lurralde teknikariek; haietako bat idazkari gisa ari izango da.

4.– 2016ko maiatzaren lehen hamabostaldian Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan argitara emanez emango zaie deialdi honen ebazpenaren berri onuradunei.

5.– Gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza sailburuordeari administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen horren kontra, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

6.– Arestian esandakoaren kalterik gabe eta interesatuek errazago kontsultatzeko, ikastetxeetako zuzendaritzei ere bidaliko zaie ebazpena. Dena den, zirkunstantzia horrek ez die jakinarazteko erari eta errekurtsoa jartzeko aurreko bi ataletan azaltzen den epeari eragingo.

7.– Sei hilabeteko epean, agindu hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, berariazko ebazpena eman ezean, eskaera ezetsi dela interpretatu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako, aipatutako legeak espresuki ebazteko administrazioei ezartzen dien eginbeharraren kalterik gabe.

9. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Emandako diru-laguntza aldez aurreko ordainketa bakar baten bidez emango zaio onuradunari, ikasten duen ikastetxearen bidez eta hilabeteko epean, diru-laguntza onartzen denetik kontatzen hasita, 10.a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Onuraduna dirua itzultzeko edo zigor-prozeduraren batean, tramitatzen ari dena, baldin badago, prozedura horrek bukatu ondoren eman edo, emanda badago, ordainduko zaio diru-laguntza. Hezkuntza Berriztatzeko (Hezkuntza Berezia) lurralde teknikariek diru-laguntza horiek ordaintzea justifikatzeko, fakturak aurkeztuz, eskaera egin ahal izango diote ikastetxeari, 11.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua.– Onuradunaren eginbeharrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen Legearen testu bateginak 50.2. artikuluan eta Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 14. artikuluan oro har xedatutako eginbeharren kalterik gabe, agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek, betiere, ondorengo eginbeharrak bete beharko dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretan, hamar eguneko epean, onuradunen zerrenda argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, onuradun horiek espresuki eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartzen dutela interpretatuko da.

b) Diru-laguntza eman den helburu konkreturako erabiltzea.

c) Diruz lagundutako jardueraren helburua funtsean aldatzen duen edozein ustekabeko gertaera jakinaraztea. Halaber, eman beharko die Lurralde Ordezkaritzei, Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari instituzio horiek, beren funtzioetan aritzean, deialdi honen konturako jasotako diru-laguntzei buruz eskatzen dioten informazioa.

11. artikulua.– Diru-laguntzaren kontrola.

1.– Ikasturteak bukatuta, eta 2016ko irailaren 15a baino lehenago, diru-laguntzen zenbatekoak garraio-ordainagiriekin justifikatzeko eskaera egingo diete ikastetxeetako zuzendariek onuradunei. Justifikatzeko dokumentazio hori (txartelak, fakturak, ...) ikastetxean artxibatuko da, agian egin beharko diren egiaztatzeetarako.

2.– Ikastetxe publikoetako zuzendariek Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzen kontuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren kontu zentraletan itunpeko ikastetxe pribatuetako zuzendariek, sartuko dute justifikatu ez diren eta, ikaslea klasera joan ez izanagatik edo ikastetxean bajan eman izanagatik, erabili ez diren diru-laguntzen zenbatekoa eta, diru-laguntza ordaindu bada, erabat edo partzialki itzultzeko eskaera egingo diote onuradunari.

3.– Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan eta aplikatu beharreko gainontzeko legeriak adierazitako edozein arrazoirengatik diru-laguntza itzultzeko espediente bati hasiera emanez gero, abenduaren 27ko 698/1991 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako diru-laguntzen berme eta itzultzeen erregimen orokorra arautzen duenak, bigarren tituluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da eta, behar izanez gero, jasotako kopuruak, guztiz edo partzialki, gehi berandutza-interesak itzuli beharko dira.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatzen duena aplikatu beharko da agindu honetan arautzen ez diren gaietan. Halaber, eta agindu honetan xedatutakoaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartuak) VI. tituluan, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak (azaroaren 17ko diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren araudia onartzen duenak) xedatutakoaren arabera jokatuko da diru-laguntzen arloan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako gastu-espedienteen aldez aurreko tramitazioa arautzen duenak, 5.3 artikuluan xedatzen dituen ondorioetarako, 2016. urterako Euskal Autonomia

Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar adina kreditu egotearen menpe egongo da agindu honen diru-laguntzak ebazteko prozesua.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Interesatuek aukerako birjartze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen kontra, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, egunkari ofizial berean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean izango ditu agindu honek ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 24a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

ESKOLA GARRAIORAKO BANAKAKO DIRU LAGUNTZAK
2015-2016ko IKASTURTEA

ESKAERA EREDUA

ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK:

.....jaunak /andreak, ...NANa duenak, ondorengo ikaslearen aita, ama, tutorea edo legezko ordezkaria den aldetik:
Izena:..... Jaiotze-data:…….....
Etapa:.....Kurtsoa:…….....Gela egonkorra /Taldekatzea:.....
Helbidea:.....
Tlfno.....Herria:.....Lurraldea:.....

ESKATUTAKO GARRAIOA (merkeena helbidearen eta ikastetxearen artean):

☐ Garraio publikoa (…….....) ☐ Ibilgailu egokitua (…….....) ☐ Ibilgailu partikularra ☐ Beste bat. (……..)

- Familiaren helbidearen eta ikastetxearen arteko distantzia:..... bidaiako kilometroak
- Eguneko bidaien kopurua:.....

ESKATZAILEAK ADIERAZTEN DU:

a) Diru-laguntza publikoak jaso ezin izateko zigorraren, bide penalaren edo administratiboaren bidez, pean ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inolako legezko debekutan egotea ere, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunarenak, azken xedapen seigarrenean zehaztutakoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gerta daitezkeenak barne.

b) Diru-laguntzak itzultzeko edo zigor-prozeduretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere organismo autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzen esparruan hasitakoa eta tramitazio-fasean dagoena, sartuta ez egotea.

c) Zerga-eginbeharrak edo Gizarte Segurantzari begirakoak eguneratuta izatea.

d) Helburu bererako beste edozein erakunde publiko edo pribatu baten diru-laguntzarik jaso ez izana.

e) Hau jakitea: abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, titularitate publikoko datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia Sortzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, haien tratamendua egiteko eta argitara emateko parte-hartzaileek baimena ematen badute, Hezkuntza Berezia izeneko fitxategi batean sartuko dira eta diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea eta nola eramaten den aurrera parte hartzen duten pertsonei jakinaraztea izango ditu fitxategi horrek helburu. Fitxategiaren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datu horietara sartzeko, zuzentzeko, ixteko eta aurkatzeko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetan: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

f) Eskatutako diru-laguntza beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eman ditzaketen beste batzuekin bateraezina dela jakitea.

g) Aurkeztutako agiriak egiazkoak diren beste erakunde publiko batzuetan frogatzeko eta zerga-eginbeharrak eta Gizarte Segurantzari begirakoak egunean izatea zuzenean, ziurtagiri telematikoen bidez, egiaztatzeko baimena Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari ematea. Azken kasuan, eskatzaileak espresuki uko egin ahal izango dio baimena emateari eta, orduan, ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Data:..... Eskatzailearen sinadura:

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARI ANDREA

II. ERANSKINA

ESKOLA GARRAIORAKO BANAKAKO DIRU LAGUNTZAK
2015-2016ko IKASTURTEA

TRAMITATZEKO EREDUA

..... jaunak /andreak, ... ikastetxeko zuzendariak (ikastetxearen kodea:.....) ikastetxearen helbidea. Kalea: ..... zk.: ..... Posta-kodea: ..... Herria: ..... Lurraldea: ..... ondoren aipatzen diren ikasleei garraiorako banakako diru-laguntzak emateko eta garraio hori antolatzeko eskaerak bidali zituen:

1.– Ikastetxe honetan matrikulatuta dauden ikasle eskatzaileen zerrenda

Izen-deiturak	Jaiotze-data	Etapa	Kurtsoa	Ikaslearen helbidea Kalea/ Herria	Eskatutako garraio mota (1)	Elbarritasun -ziurtagiria	Lurralde Ordezkaritzak esleitutako ikastetxea	Ohiko garraioa erabil dezake

2.– Garraioaren antolaketa

2.1.– Banakako garraioa

Ikaslea (inizialak)	Eskatutako garraio mota (1)	Ibilbidea	Bidaiako kilometroak	Eguneko bidaien kopurua	Eguneko zenbatekoa	Egunen kopurua, eskola-egutegiaren arabera	Guztizko zenbatekoa

(1) GARRAIO MOTA
a: garraio publikoa
b: ibilgailu partikularra
c: beste batzuk

2.2.– Garraio kolektiboa (Antolatutako garraio kolektibo bakoitzeko taula bat bete)

GARRAIOAREN DATUAK
Ibilgailuaren matrikula .....
Plazen kopurua (txoferra barne) .....
Ibilbidea (geltokiak zehaztu) .....
Garraio mota: autobusa / taxi egokitua / ez egokitua
Ibilbidea (kilometroak bidaiako) .....
Eguneko bidaien kopurua .....
Eguneko zenbatekoa .....
Egunen kopurua .....
Garraioaren kostua, aurrekontuaren arabera .....

IKASLEEN DATUAK							
Ikaslea (inizialak)	Ikaslearen geltokia	Ikastetxeko ordutegia	Bidaiako kilometroak	Eguneko bidaien kopurua	Egunen kopurua, eskola-egutegiaren arabera	Aurrekontu-aren gaineko ehunekoa (%)	Ikaslearen guztizko zenbatekoa

Sartutako ikasleek 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztela baieztatzen dut.

----------(-e)n, 2015eko ----------aren ---------- (-e)an

Ikastetxeko zuzendaria

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, titularitate publikoko datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia Sortzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, haien tratamendua egiteko eta argitara emateko parte-hartzaileek baimena ematen badute, Hezkuntza Berezia izeneko fitxategi batean sartuko dira eta diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea eta nola eramaten den aurrera parte hartzen duten pertsonei jakinaraztea izango ditu fitxategi horrek helburu. Fitxategiaren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datu horietara sartzeko, zuzentzeko, ixteko edo aurkatzeko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetan: Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz. Halaber, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonek aurkeztutako agiriak egiazkoak diren beste organismo publikoetan frogatzeko baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA